

Etika eta Eskubide Kodea

**Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren
Kalitate Agentzia**

Unibasq-eko Gobernu Kontseiluak 2016ko uztailaren 13an onartua

ARTIKULUAK

1. artikulua. Xedea

2. artikulua. Aplikazio-esparrua

3. artikulua. Kodearen publikotasuna eta konpromiso Etikoaren sustapena

....4. artikulua. Etika eta Eskubide Kodearen onarpena eta berrikuspena

II. TITULOA: PRINTZIPIO ETIKOAK

....5. artikulua. Interes publikoaren, hezkuntzarako eskubidearen eta gizarte-erantzukizunaren defentsa

....6. artikulua. Etengabeko hobekuntza

....7. artikulua. Efizientzia baliabide publikoak erabiltzean

....8. artikulua. Ingurumen-erantzukizuna

....9. artikulua. Erabiltzailearentzako orientazioa

...10. artikulua. Independentzia

...11. artikulua. Zorroztasuna eta objektibotasuna

...12. artikulua. Inpartzialtasuna eta bateraezintasun kausak

...13. artikulua. Abstentzioa eta ezespena

...14. artikulua. Gardentasuna

...15. artikulua. Konfidentzialtasuna

...16. artikulua. Lankidetzeta eta talde-lana.

...17. artikulua. Unibertsitateen autonomiarekiko eta berariazkotasunarekiko errespetua eta lankidetzeta

III TITULOA. ETIKA ETA ESKUBIDE BATZORDEA

18. artikulua. Batzordearen eskumenak

...19. artikulua. Etika eta Eskubide Batzordearen osaera

...20. artikulua. Jardunbide printzipioak

...21. artikulua. Erregelamendua

ERANSKINA.

AITZINSOLASA

Funtsean, Euskal Unibertsitate Sistemaren kalitatea hobetzen laguntzeko sortu zen Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia, eta sistema horren kalitatea ebaluatzea, egiaztatzea eta ziurtatzea du helburu, Espainiako, Europako eta nazioarteko esparruan.

Kalitate-agentzia bat den aldetik, bere jardunen objektibotasuna eta inpartzialtasuna bermatu behar du Unibasqek, eta, erakunde publikoa den aldetik ingurune sozioekonomikoarekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa azaldu behar du. Helburu honekin Etika eta Eskubide Kode hau onartzen da. Kode honek Unibasq-en eta Agentziarekin lan egin edo zerbitzuak prestatzen dituzten pertsonen jarduerak zuzentzen dituzten balore-sistema eta printzipioak definitzen ditu.

Kodea diseinatu eta ezartzeko, aplikazio orokorreko oinarrizko printzipioak txertatuko dira funtzio publikoaren zerbitzu guztietan, unibertsitate-funtzioaren zerbitzu espezifikagoetan eta ziurtapen, egiaztapen eta ebaluazio jardueretan. Halaber, Unibasq-eren europar ikuspuntua kode etiko honen idazketan antzematen da, Goi Hezkuntzako nazioarteko erakunde eta agentzien baloreak, oinarriak eta estandarrak hartu dituelako erreferentzia-puntu bezala, batez ere: Guidelines for Quality Assurance in the European Higher Education Area (ESG)

Dokumentu honek Kodearen konplimenduaren zaintzaz arduratuko den organoa izendatzen du, Unibasq-eko Etika eta Eskubide Batzordea. Kodearen haustea edo jarduera baten objektibotasuna edo gardentasuna arriskuan jarri dezakeen interes-gatazka bat ikusten duen edonork Batzordearen aurrean erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du.

Unibasqeko Zuzendaritzak, langileek eta Gobernu-organoez erakundeari etikotasuna eta gizartearekiko ardura emateko betebeharra dute. Horretarako, Etika eta Eskubide Kodea betetzea eta egokitu zaizkien funtzio guztiak betetzean Etika Kodeko printzipio etikoekiko atxikimendua nagusitzea zaindu behar dute.

LEHENENGO TITULUA. XEDETASUN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Agentziaren barnean konfiantza-irizpideekin bat eta gizartearekiko arduraz lan egiteko arauen beharretik sortu da Unibasquen Etika eta Eskubide Kodea. Printzipio horiek, aldi berean, lan-metodoetan txertatutako balio partekatuak sortzeko balio behar dute. Horren azken helburua, nolana ere, Euskal Unibertsitate Sistemaren kalitatea ebaluatu, egiaztatu eta ziurtatzeko prozesuetan Agentziaren jardunen objetibotasuna eta gardentasuna bermatzea da.

2. artikulua. Aplikazio-esparrua

Unibasq-eren helburua, espainiar, europar eta nazioarteko esparrua kontuan hartuz, euskal unibertsitate sistemaren alorrean kalitatea ebaluatzea, egiaztatzea eta ziurtatzea da. Etika eta Eskubide Kodea nahitaezko bitarteko bat da xede hori lortzeko eta Agentziaren beraren jardunaren sinesgarritasunarentzako. Hau dela eta, Agentziaren eta Euskadiko goi-hezkuntzako erakundeen arteko harremanek Etika eta Eskubide Kodea bete behar dute, baita Agentziak beste erakunde edo interes-talde batzuekin dituen harremanek ere.

Etika eta Eskubide Kodea bete behar dutenak honako hauek dira: Agentziako zuzendaria, Agentziaren zuzendaritzako ondokoa eta gobernu organoak, arlo ezberdinei atxikitako langileak, organo teknikoak eta ebaluazio-organok, eta horiek osatzen dituzten edo Unibasq-i zerbitzu profesionala egiten dioten pertsonak.

3. artikulua. Kodearen publikotasuna eta konpromiso Etikoaren sustapena

Unibasq-ek bere langileen eta Agentziarekin kolaboratzen duten pertsonen artean Kode honen konpromiso, printzipio, baloreak eta konpresioa ezagutzera emateko konpromisoa hartzen du. Horretarako, agentziaren web gunean publikotasuna emango zaio eta langileei eta ziurtapen, aholku, egiaztapen edo ebaluazio zerbitzuak ematen duen edonori kode honen berri emango zaie. Pertsona guzti hauek Etika eta Eskubide Kodera, bere zehaztapen guztietan, atxikipena baieztatuz adierazpen bat sinatuko dute. (I.Eranskina)

4. Artikulua. Etika eta Eskubide Kodearen onarpena eta berrikuspena

Gobernu Kontseiluari Agentziaren Etika eta Eskubide Kodea onartzea eta aldatzea dagokio bere jardueretan objetibotasuna eta inpartzialtasuna bermatzeko helburuarekin.

II. TITULOA: PRINTZIPIO ETIKOAK

5. artikulua. Interes publikoaren, hezkuntzarako eskubidearen eta gizarte-erantzukizunaren defentsa

Unibasq-ek bere ekimenekin Euskal Unibertsitate Sistemaren kalitatea hobetzeko dagoen interes publikoa asetzea lortu nahi du, giza eskubideetan, askatasunean, berdintasunean eta nortasunaren garapen askean eta bereziki hezkuntzarako eskubidean oinarritutako gizarte demokratiko baten esparruan.

Unibasq-ek momentu oro egiten dituen zerbitzuek gizartean izan dezaketen eragina eta ingurunearekiko errespetua kontuan izango ditu. Horretarako, euskal unibertsitate sistemaren hobekuntzan sartuta dauden interes talde guztiekin komunikazio bideak ezarriko ditu. Unibasq-ek egiten dituen zerbitzuen eta ekimenen etengabeko hobekuntza prozesuetan talde hauekin elkar aldatuko dituen informazioa eta iritziak kontuan hartuko ditu.

6. artikulua. Etengabeko hobekuntza

Unibasq-ek jakin badaki kalitateak, zerbitzuak eta bikaintasunaren eta berrikuntzaren kulturak garrantzi handia dutela jarduera guztietan, eta, horregatik, ematen dituen zerbitzuak etengabe hobetzen saiatuko da eta bere jarduerak nazioartean ezagututako erkide diren arauetara egokituko ditu.

Agentzia behartuta dago kanpoko ebaluazioa eta egiaztapena egitera, emaitzen etengabeko hobekuntza eta erabiltzaileen, gizartearen eta unibertsitate-komunitatearen konfiantza lortzeko. Behartuta dago, halaber, egiten dituen jardueretan eta diseinatu eta aplikatzen dituen prozesuetan etengabeko berrikuntza-ahalegin bat egitera, jarduera eta prozesu horien eraginkortasuna eta arintasuna hobetzeko.

7. Efizientzia baliabide publikoak erabiltzean

Zuzendaritza, langileak, organoak eta Unibasq-ekin kolaboratzen duten pertsonak behartuta daude esleitzen zaizkien baliabideak erabiltzean efizientzia bilatzera.

Unibasq-ek gardentasunez kudeatu behar ditu bere baliabide ekonomikoak, eta independentzia, efizientzia eta arrazoizkoa izateko irizpideei jarraituz administratu behar ditu, Euskal Unibertsitate Sistemarentzako modu egokienean erabiliz, alegia. Baliabideen erabilerak ez ezik, haien jatorriak ere izan behar du gardena.

8. artikulua Ingurumen-erantzukizuna

Unibasq kezkatuta dago giza jarduerak ingurumenean duten eraginarekin eta ingurumenaren narriadurarekin. Hori dela eta, ingurunea errespetuz kudeatzeko eta, horretarako, honako printzipio hauek betetzeko konpromisoa hartu du: i) bere jardueren ingurumen-inpaktuak txikiagotzeko konpromisoa; ii) energia modu eraginkorrean erabiltzen saiatzeko eta, horretarako, material gutxiago kontsumitzeko eta sortzen dituen hondakinak egokiro kudeatzeko konpromisoa; iii) eta kutsadurari aurrea hartzeko eta, horretarako, egiten dituen jardueretan ingurumen-irizpideak kontuan hartzeko konpromisoa.

9. artikulua Erabiltzailearentzako orientazioa

Erabiltzaileek behar eta espero dutenari erantzuteko ahaleginean jarri behar du arreta nagusiki Unibasqek, eta horrexek izan behar du bere estrategiaren muina. Bere zerbitzuak hobetzeko konpromisoa hartu du Unibasqek, eta, horretarako, tratu pertsonalizatua emateko eta ematen dituen zerbitzuei buruzko informazio argi eta arina emateko asmoa du. Agentziako langileek, zuzendaritza-organoek eta ebaluazio-batzordeek pertsonen eta erakundeen premiak errespetatu behar dituzte, arduraz eta zintzoki jokatu behar dute, eta ahalik eta profesionaltasun, inpartzialtasun eta bizkortasun handienaz eman behar dituzte zerbitzuak, pertsona eta erakundeek emaitzak eta behar bezala arrazoitutako erabakiak jakinaraziz.

10. artikulua Independentzia

Unibasq askatasunez eta autonomiaz jokatu du bere betebeharren jardunetan, bere eginkizuna errazago betetzeko eta bere jardunak profesionalak eta sinesgarriak izatea lortzeko.

Unibasq-eko langileek edo zerbitzua egiten dion inork ez du utziko kanpo-presioek edo kanpo-eraginek edo kanpotiko esku-hartzeek bere irizpideen, iritzien eta lan-printzipioen zorrotasunean eraginik izan dezaten.

11. artikulua. Zorrotasuna eta objektibotasuna

Unibasqeko langileak, ebaluatzaileak eta laguntzaileak zehaztasun eta zorrotasun teknikoan baino ez dira oinarrituko beren jarduerak egiteko, eta ez dute hartu behar kontuan alde aurreko balio-judiziorik.

Aitzitik, meritu objektiboak eta eskatutako funtziorako egokitasuna baino ez dira kontuan hartuko. Unibasqekin lankidetzan diharduten pertsonen Kode honetan islatuta dauden arauak eta printzipioak hartzen dituzte beren gain beren ekintza, balioespen eta iritzietan.

12.artikularia Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza

1.-Agentziak eta harentzat zerbitzuak egiten dituzten pertsonen ahalegin guztiak egingo dituzte beren judizioetan inpartzialak izateko; hortaz, ez dute inolako diskriminaziorik egingo. Agentziako organoetako kideek ez dute ordezkatzeko duten alderdiaren izenean lan egin behar, beren izenean eta beren irizpide propioei jarraiki baizik. Era berean, ez dute hartu behar kontuan Unibasqek ematen dituen zerbitzuei lotutako prozesuetan parte hartzen duten pertsonen aldeko edo kontrako alde aurreko judiziorik, eta ezein jardueratan parte hartzeari uko egin behar diote interesen arteko gatazkaren bat egongo balitz.

2.-Pertsona fisikoek egindako ebaluazio edo egiaztapen eskaeren kasuan, berau egiteko bateraezintasun arrazoiak honakoak dira:

- a) Eskatzailearen sail edo unibertsitate zentro berekoa lagun izatea
- b) Laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko kidesuna izatea eskatzailearekin.
- c) Eskatzailearekin bukatutako bi ikerkuntza edo berrikuntza proiektuetan edo gehiagoetan parte hartu izana, edo eskaera edo ebaluazioa egin behar den momentuan indarrean dagoen proiektu bateko parte-hartzaile izatea.
- d) Eskatzailearen doktorego tesiaren zuzendaria izana
- e) Auzi bat izatea eskatzailearekin edo iraganean eduki izana
- f) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokkeen beste batean.
- g) Eskatzailearekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
- h) Egiaztapenean edo ebaluazioan parte hartzen duen pertsonaren objetibotasuna edo inpartzialtasuna asalda dezakeen interes-gatazka bat sor dezakeen beste edozein egoera.

3. Beste erakunde batzuek egin behar dituzten ziurtapen, egiaztapen edo ebaluazio txostenen eskaeren kasuan, bateraezintasun arrazoiak honakoak dira:

- a. Erakundea atxikita dagoen Unibertsitate berekoa izatea edo azkeneko bi urtean zerbitzu profesionalak egin izana zentro eskatzailean.

- b. Erakunde eskatzailea (zentroa, unibertsitatea, etab ... eskaera egiten duen erakundearen arabera) ordezkatzeko dutenekin laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko kidesuna izatea
- c. Indarrean dagoen auzi bat izatea edo eduki izana erakunde eskatzailea atxikitzen den unibertsitatearekin edo erakunde eskatzailea ordezkatzeko duten pertsonekin (zentroa, unibertsitatea, etab.... eskaera egiten duen erakundearen arabera)
- d. Interes pertsonala izatea aztertuko den gaien edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokkeen beste batean
- e. Erakunde eskatzailea (zentroa, unibertsitatea, etaba, eskaerak egiten duen erakundearen arabera) ordezkatzeko duten pertsonekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea
- f. Egiatapenean edo ebaluazioan parte hartzen duen pertsonaren objetibotasuna edo inpartzialtasuna asalda dezakeen interes-gatazka bat sor dezakeen beste edozein egoera.

13. artikulua. Abstentzia eta ezespena

Aurreko artikuluan aipatutako bateraezintasun arrazoi bat ematen den guztietan espediente horren ziurtapenean, egiaztapenean edo ebaluazioan parte hartzen dabilen pertsonak Etika eta Eskubide Batzordeari jakinarazi beharko dio lehenbailehen. 12.2 artikuluko a, b, c, d eta e hizkietan edo 12.3 artikuluko a,b eta c hizkietan agertzen diren arrazoiren bat jasoko balitz Batzordeak, berauetan aurreikusten den ustezko egintza ematen dela alderatu ondoren, pertsona hori berehala prozesutik baztertzeko agindua emango du.

12.2 artikuluko f, g eta h hizkietan edo 12.3 artikuluen d, e eta f hizkietan aurreikusitako arrazoiren bat ematen bada Etika eta Eskubide Batzordeak egoera aztertuko du eta pertsona prozesutik baztertu edo ez erabakiko du bere erabakiaren objetibotasun edo inpartzialtasuna arriskuan jartzeko besteko arrazoia den arabera.

Baztertutako pertsonari egokitutako rol-a eskaeraren txostenaren idazketa edo egiaztapen-instituzional baten bisita panelaren kide izatea bada beste pertsona bat izendatu beharko da hau ordezkatzeko. Beste pertsona batzuk egindako espediente batzuen inguruan erabaki bat hartu behar duen Batzordearen kide bada ordea, eta espediente hauen artean abstentziorako arrazoi bat badago, Batzordearen gainontzeko kideek eztabaidatu eta espediente jakin horren inguruan erabakia hartu behar dutenean bilera utzi egin beharko du. Azken kasu honetan, ez da ordezkorik izendatuko, Batzordearen gainontzeko kideek hartuko baitituzte erabakiak.

12.artikuluan aipatutako bateraezintasun arrazoi bat ematen den kasuetan eta ez bazaio eskatu Etika eta Eskubide Batzordeari abstentzia eta honek ez badu ere ofizioz egin, interesdunek prozeduraren edozein momentutan pertsonaren ezespena eskatu dezakete. Ezespena idatziz aurkeztu eta Etika eta Eskubide Batzordeari zuzenduko da eta ezespen hau oinarritzen den arrazoiak azalduko ditu. Batzordeak ezetsitako pertsonari idatzia helaraziko dio honek adierazitako bateraezintasun arrazoiak ematen den edo ez azaldu dezan. Onartuz gero, pertsona automatikoki espedientetik baztertuko da artikuluko honen 1.artikuluan ezarritako efektuekin. Ezespenerako arrazoiak dagoela ukatuz gero Eskubide eta Etika Batzordeak alde biak entzun eta emandako frogak aztertu ondoren prozeduren 6.artikuluan ezarritakoari jarraituz erabakia hartuko du. Ezespena onetsiz gero, erabakiaren ondorioak artikuluko honetako 1.artikuluan jasotakoak izango dira.

14. artikulua Gardentasuna

Unibasq-ek aurrez eta argiro jakinarazi behar du ebaluazio-irizpideei eta ebaluazio-prozesuei eta ebaluazioan eta jardueretan erabiltzen dituen prozedurei, inprimakiei, formularioei eta tresnei buruzko beharrezko informazioa, eta ez du ezein informazio ezkutatu, zerbitzuen erabiltzaileek informazio hori eskuratzeko eskubidea badute.

15. artikulua Konfidentzialtasuna

Unibasq-ek bere esku dauden datu pertsonalak behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezarriko ditu, indarrean dagoen legerian aurreikusitakoari jarraiki. Horretarako, datu pertsonalen konfidentzialtasuna ziurtatzeko mekanismo eraginkorrak ezarriko ditu. Agentziak ezin izango du eman, inola ere, ebaluatutako pertsonak emandako datu pertsonalei buruzko informaziorik, interesdunek espresuki baimendu edo epai-agindu bat dagoenean izan ezik.

16.artikulua Talde-lanaren kultura

Talde-lana, lankidetzak eta informazioa eta ideiak elkartrukatzeko jarduerak beharrezkoak dira Unibasq-ek bere helburuak lortzeko, baita ebaluatzaileek eta langileek informazioa eta ideiak elkarri helaraztea ere. Horretarako, talde-lana sustatzeko eta esperientziak, ideiak eta iradokizunak elkartrukatzeko beharrezkotzat edo komenigarritzat hartzen diren bilerak eta jarduerak egingo dira informazioa elkartrukatzeko. Era berean, garapen pertsonalerako eta profesionalerako aukera nahikoak emango dituen lan-giro estimulatzaile eta errespetuzko bat sustatuko da.

17.artikulua. Unibertsitateen autonomiarekiko eta berariazkotasunarekiko errespetua eta lankidetzak

Euskal unibertsitateen autonomia eta aniztasuna errespetatzeak izan behar du nagusi Unibasq-en jardueretan. Haien arteko eta haiekiko lankidetzak eta komunikazioa bilatuko da.

Euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea aztertzeko, ebaluatzeko eta egiaztatzeko tresnak eta jardunbide egokiak elkarri helaraztea oinarrizkoa da Agentziaren jarduerak eraginkortasunez egiteko eta etengabe hobetzeko. Horretarako, euskal unibertsitate-sistemako agenteek Unibasq-en estrategien definizioan modu aktiboan parte har dezaten bultzatu behar du Unibasq-ek, eta sortzen diren egoera eta eskari berriak kontuan hartu behar ditu bere estrategiak zehazterakoan.

III.TITULOA. Etika eta Berme Batzordea

18.artikulua. Batzordearen eskumenak

Etika eta Eskubide Batzordea Kodearen konplimentuaren zaintzaz arduratzen den organoa da. Zehazki eskumen honek dagozkie:

- 1) Kodearen ezarpena, interpretazioa eta erabilera zuzenak izan daitezen ikuskatuko du
- 2) Kode honen 13.artikuluaren ondorioz bere aurrean aurkeztutako ezespren eskaera edo abstentzio beharraren idatziak aztertu eta hauen inguruan erabakia hartu beharko du.
- 3) Bai Kodearen zein erregelamenduaren ezarpenaren aldizkako berrikuspenak egitea, balegokio, eta emaitzak Gobernu Kontseiluari helarazi.
- 4) Unibasq-ek igorritako ziurtapen, egiaztapen edo ebaluazio txostenen aurka aurkeztutako helegiteen inguruan erabaki bat hartzea hauek forma-akatsean ebaluatutako pertsonaren edo erakundearen alde ezarritako eskubide bat urratzen badute edo prozesuan parte hartu duten edonoren inpartzialtasun ezan oinarritzen badira. Ebazpenak helegitea balioesten badu, ondorioa erabakiaren deuseztasun adierazpena izango da eta errekurritutako ziurtapenaren, egiaztapenaren edo ebaluazio txostenaren errepikapena ekarriko du. Helegitea aurkezteko zergatiak eta prozedura Etika eta Eskubide Batzordearen Erregelamenduaren 6.artikuluaren garatzen da, kode honen 21.artikuluari buruzkoa dena.
- 5) Aurreko artikuluan aipatzen diren arrazoi ezberdinetan oinarrituko Kodea urratzeagatik aurkeztutako erreklamazioei buruz informazioa zabaltzea. Erreklamazio hauek jartzeko prozedura Etika eta Eskubide Batzordearen erregelamenduaren 7.artikuluaren garatzen dira.

19. Artikulua. Etika eta Eskubide Batzordearen osaera

Etika Batzordea osatuko dutenak honako hauek dira:

- a) Agentziako zuzendaria edo bera eskuordetzen duen pertsona.
- b) Agentziako langileen artean aukeratutako ordezkari bat.
- c) Unibasq-eko Aholku Batzordearen arteko kideen artean aukeratutako pertsona bat.
- d) Unibasq-eko Gobernu Kontseiluak, edozein kidek proposatuta, izendatzen duen etika-arloko aditu bat.
- e) Euskal unibertsitate sistemarekin zerikusirik ez duen Unibasq-eko Ikasle Aholku Batzordeak izendatzen duen ikasle bat.

Batzordea osatzen duten pertsonak hiru urterako izendatuko dira, eta kargua behin bakarrik berritu ahal izango dute, epealdi bera izanez. Segidako bi alditan batzordekide izan diren pertsonak ezin izango dira berriz izendatu kargua utzi eta hiru urte igaro arte.

20. Artikulua. Jardunbide printzipioak

Batzordekideek Kode honetan zehaztutako printzipio etikoak izango dituzte erreferentzia orokor gisa. Kodea bete ez izanagatiko erreklamazioei ekitean, honako printzipio hauek hartuko dituzte bereziki kontuan: objektibotasuna, inpartzialtasuna, independentzia, konfidentzialtasuna, kontraesana, eraginpeko pertsonetikiko errespetua eta zentzuzko bizkortasuna.

21. Artikulua. Erregelamendua

Barne-erregelamendu batean zehaztuko da organoaren funtzionamendua. Batzordeak berak onartu beharko du barne-erregelamendu hori, Kode hau onartu ondoren egiten den lehen bileran. Geroago, Agentziaren Gobernu Batzordeak berretsi beharko du. Gobernu Kontseiluak Batzordeak erregelamenduan onartzen duen edozein aldaketa berretsi beharko du eta ondoren Unibasq-eko web gunean argitaratu beharko da.

I. Eranskina

ETIKA ETA ESKUBIDE KODEAREN ONARPENA ETA KONFIDENTZIALTASUNAREN, INPARTZIALTASUNAREN ETA INTERES GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA

Sinatzaileak adierazi du Unibasq-en Etika Kodea irakurri eta ulertu duela, eta, horrenbestez, honako hau

ADIERAZI DU:

- Onartu egiten du, fede onez interpretatuko du eta errespetatuko dela ziurtatuko du.
- Ez du parte hartuko interes akademikoen edo pertsonalen arteko gatazkak sor diezazkioketen proposamenak ebaluatzen, ezta ebaluatzeko eskatzen dioten proposamenak edo curriculumak ebaluatzen ere, zuzeneko edo zeharkako harremana badu haiekin. Zehazki:

Pertsona fisikoek egindako ebaluazio edo egiaztapen eskaeren kasuan, berau egiteko bateraezintasun arrazoiak honakoak dira:

- a) Eskatzailearen sail edo unibertsitate zentro berekoa lagun izatea
- b) Laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko kidetasuna izatea eskatzailearekin.
- c) Eskatzailearekin bukatutako bi ikerkuntza edo berrikuntza proiektuetan edo gehiagoetan parte hartu izana, edo eskaera egin edo ebaluazioa egin behar den momentuan indarrean dagoen batean parte-hartzen egotea.
- d) Eskatzailearen doktorego tesiaren zuzendaria izana
- e) Auzi bat izatea eskatzailearekin edo iraganean eduki izana
- f) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean.
- g) Eskatzailearekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
- h) Egiaztapenean edo ebaluazioan parte hartzen duen pertsonaren objetibotasuna edo inpartzialtasuna asalda dezakeen interes-gatazka bat sor dezakeen beste edozein egoera.

Beste erakunde batzuek egin behar dituzten zertifikazio, egiaztapen edo ebaluazio txostenen eskaeren kasuan, bateraezintasun arrazoiak honakoak dira:

- a) Erakundea atxikita dagoen Unibertsitate berekoa izatea edo azkeneko bi urtean zerbitzu profesionalak egin izana zentro eskatzailean.

- b) Erakunde eskatzailea (zentroa, unibertsitatea, etab ... eskaera egiten duen erakundearen arabera) ordezkatzeko dutenekin laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko kidesuna izatea eskatzailearekin
 - c) Indarrean dagoen auzi bat izatea edo eduki izana erakunde eskatzailea atxikitzen den unibertsitatearekin edo erakunde eskatzailea ordezkatzeko duten pertsonekin (zentroa, unibertsitatea, etab.... eskaera egiten duen erakundearen arabera)
 - d) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaien edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokkeen beste batean
 - e) Erakunde eskatzailea (zentroa, unibertsitatea, etaba, eskaerak egiten duen erakundearen arabera) ordezkatzeko duten pertsonekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea
 - f) Egiatapenean edo ebaluazioan parte hartzen duen pertsonaren objetibotasuna edo inpartzialtasuna asalda dezakeen interes-gatazka bat sor dezakeen beste edozein egoera.
- Konpromisoa hartu duela ebaluatu behar dituen proposamenekin edo curriculumekin zuzeneko edo zeharkako interes-gatazkaren bat dagoela badaki Unibasqi berehala haren berri emateko, baita bera dagoen bilera batean eztabaidatzen diren proposamenekin edo curriculumekin zuzeneko edo zeharkako interes-gatazkaren bat dagoela badaki ere.
 - Ez duela emango inongo informaziorik ebaluazio-prozesuari eta haren emaitzei buruz.
 - Ebaluazioa Unibasq-en bulegoetatik kanpo egiten bada, badakiela bera izango dela bidaltzen dioten dokumentu idatzi edo elektronikoko ororen konfidentzialtasunari eusteko arduraduna eta, ebaluazioa amaitzen denean, dokumentu konfidentzial guztiak suntsituko edo ezabatuko ditu, Unibasqek kontrakoa esaten ez badio.

Lekua eta eguna

Sinadura

Izen-abizenak